

**EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA**  
**EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN**  
**DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK,**  
**ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ESKALAKO**  
**ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN AZPIESKALARI**  
**(PLAZA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA)**  
**DAGOKIONA**

**ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA**  
**OPOSIZIOKO LEHEN PROBARI BURUZKO GALDERAK.**

**1. ZATIA**

**1. Espainiako Konstituzioaren arabera, hauetako zein da ordenamendu juridikoaren baliogoren bat?:**

- 1a) Nazioaren subiranotasuna
- 1b) Estatu soziala.
- 1c) berdintasuna.
- 1d) Demokrazia.

**2. Nork jo ditzake Konstituzioaren aurkakotzat Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako foru-arau fiskalak?:**

- 2a) Konstituzio Auzitegiak bakarrik.
- 2b) Auzitegi arruntek, ez baitira lege-mailako arauak.
- 2c) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak.
- 2d) Konstituzio Auzitegiak eta auzitegi arruntek.

**3. Espainiako Konstituzioaren arabera, zerga-sistemak honako ezaugarri hauek izango ditu (adierazi erantzun OKERRA):**

- 3a) Sistema proportzionala izango da.
- 3b) Ez da konfiskagarri izango.
- 3c) Berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarrituta egongo da.
- 3d) Guztiek lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera.

**4. Nork EZIN du jarri babes-errekurtsoa Konstituzio Auzitegian?:**

- 4a) Gobernuak edo Ganberetako edozeinek.
- 4b) Herriaren Defendatzaileak.
- 4c) Fiskaltzak.
- 4d) Errekurritutako egintzak edo ez-egiteak zuzenean eragindako pertsonak.

**5. Lurralde mailako administrazio publiko diren aldetik, eta beren eskumenen eremuan, zeintzuk dira, besteak beste, udalen eta probintzien ahalak?:**

- 5a) Erregelamenduak egiteko eta autoantolatzeke ahala, baina ez zerga- eta finantza ahala.
- 5b) Jabetza kentzeko ahala eta beren ondasunak ofizioz ikertu, mugatu eta berreskuratzeko ahala, baina ez nahitaez betearazteko ahala.
- 5c) Beren egintzen legezkotasun-presuntzioa eta bete beharra, baina ez nahitaez betearazteko eta zehatzeko ahalak.
- 5d) Beren egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahala.

**6. Xedapen-printzipioa eskumenak banatzeko sistemaren printzipio gidaria izateak, zer dakar?:**

- 6a) Konstituzioak ezartzen dituela autonomia-erkidego bakoitzak dituen eskumenak.
- 6b) Konstituzioak ez duela eskumen-bloke zehatzik ezartzen autonomia-erkidego guztientzat, ezta bereziki autonomia-erkidego batzuentzat ere; aitzitik, erabaki hori lurralde interesdunen esku uzten du, betiere eskumen-banaketari buruzko konstituzio-arauak errespetatuta.
- 6c) Konstituzioak eskumen-sistema bat egituratzen duela, non eskumenen banaketa Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko akordioaren esku geratzen den.
- 6d) Konstituzioak Estuari dagozkion eskumenak eta autonomia-erkidegoenak adierazten dituela, eta eskumen-banaketa itxia xedatzen duela.

**7. Euskal Autonomia Erkidegoaren antolaketa edo konfigurazio instituzionala dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?:**

- 7a) Autonomia Estatuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren bi- tarteaz gauzatuko dira.
- 7b) Euskal Autonomia Erkidegoko barne-diseinu instituzionala gainerako erkidegoetako diseinuaren antzekoa da.
- 7c) Euskadiren aginteak eta erakunde-antolaketa Eusko Legebiltzarraren lege batean daude finkatuta.
- 7d) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde antolaketaren berezko ezaugarrietako bat lurralde

historikoen existentzia eta protagonismoa da.

**8. Estatutua erreformatzeko ekimena, nori dagokio, besteak beste?:**

- 8a) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta herri-ekimenari.
- 8b) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta udal-ekimenari.
- 8c) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gorte Nagusiei.
- 8d) Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta Lurralde Historikoen ekimenari.

**9. Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariaren hautaketa dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?:**

- 9a) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artetik eta erregeak izendatuko du.
- 9b) Hauteskunde autonomikoak irabazten dituen hautatuko da lehendakari, eta Eusko Legebiltzarrak izendatuko du.
- 9c) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du, baina ez legebiltzarkideen artetik, nahitaez.
- 9d) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du, eta Legebiltzarreko lehendakariak izendatuko.

**10. Eusko Jaurlaritzaren instituzio gisa, kide anitzeko organoa da, eta honako hauek osatzen dute:**

- 10a) Lehendakariak eta sailburuek.
- 10b) Lehendakariak, sailburuek eta Administrazioaren goi-kargudunek.
- 10c) Lehendakariak, sailburuek eta sailburuordeek.
- 10d) Lehendakariak, lehendakariordeek eta Administrazioaren goi-kargudunek.

**11. Honako elementu hauetatik, zein EZ da administrazio elektronikoaren ezaugarrietako bat?:**

- 11a) Kostuak eta espedienteak izapidetzeko denborak murriztea.
- 11b) Paper gutxiago erabiltzea.
- 11c) Enplegatuen publikoen kopurua murriztea espedienteak automatizatzearen ondorioz.
- 11d) Informazioaren gizarteari bultzada.

**12. Egoitza elektroniko batean gutxienez eskatzen den edukien artean EZ dago hauetako**

**bat:**

- 12a) Iragarkien eta ediktuen taula.
- 12b) Iradokizunetarako eta kexetarako inprimakia.
- 12c) Data eta ordu ofizialak.
- 12d) Kontratatzailearen profila.

**13. Paperean inprimatutako dokumentu elektroniko bat baliozkotzeko, zer eduki behar du dokumentu horrek?:**

- 13a) Dokumentua ematen duen organoaren zigilua.
- 13b) Sinatzailearen deskribapena.
- 13c) EKS (Egiaztapen-kode segurua).
- 13d) Dokumentua ematen duen administrazio publikoaren harremanetarako datuak.

**14. Administrazio-jarduketa automatizatu baten bidez sortutako kopia autentiko bat baliozkoa izan dadin, zer behar da?:**

- 14a) Jarduketa gauzatzen duen funtzionarioak sinatuta egotea kopia.
- 14b) Organoaren zigiluarekin sinatuta egotea kopia.
- 14c) Jarduketa gauzatzen duen funtzionarioak sinatuta egotea kopia, baita organoaren zigiluarekin eta entitatearen zigiluarekin ere.
- 14d) Idazkari nagusiak sinatuta egotea, baita organoaren zigiluarekin eta entitatearen zigiluarekin ere.

**15. Hainbat administrazio-unitatek parte hartzen duten espedienteetan, zein da espedienteak artxibatu eta transferitzeko ardura duen unitatea?:**

- 15a) Unitate bakoitzak bere zatia artxibatu eta transferitzen du, eta Artxibo Orokorrek bateratu egiten ditu.
- 15b) Espedientea hasten duen unitatea bakarrik.
- 15c) Espedientea amaitzen duen unitatea bakarrik.
- 15d) Unitate bakoitzak bere zatia artxibatu eta transferitzen du.

**16. Administrazio elektronikoan, noiz hasten da dokumentuen bizi-zikloa?:**

- 16a) Diseinatzen diren unean.
- 16b) Erregistratzen diren unean.
- 16c) Izapidetzen diren unean.
- 16d) Artxibatzen diren unean.

**17. Erregistro elektronikoa erabilgarri dago eskaerak aurkezteko:**

- 17a) Urteko egun guztietan, egun horiek baliiodunak edo baliogabeak izan.
- 17b) Urteko egun baliiodun guztietan, administrazio publiko bakoitzaren lan-egutegiaren arabera.
- 17c) Urteko egun baliiodun guztietan, egoitzak arazo teknikorik ez badu.
- 17d) Urteko egun baliiodun guztietan.

**18. Dagoeneko elektronikoki erregistratuta dauden dokumentuetan sistemaren**

**osotasunari edo segurtasunari eragin diezaiokeen kode gaizto bat detektatuz gero, zer egingo da?:**

- 18a) Administrazio publikoak baliogabetu egingo du sarrera-erregistroa.
- 18b) Administrazio publikoak dokumentazioa berriro aurkezteko eskatuko du hasierako fasean.
- 18c) Administrazio publikoak dokumentazioa berriro aurkezteko eskatuko du dokumentazioa zuzentzeko fasean.
- 18d) Erregistro elektronikoen detekzio-sistemak dituzte, erregistroa eragozten dutenak, eta egoera hori ez da gertatzen.

**19. Zer gertatzen da pertsona interesdunek dokumentaziorik aurkezten ez dutenean eta izapidetzeaz arduratzen den organoak datuak ezin dituenean datu-bitartekaritzarako plataformen bidez eskuratu?:**

- 19a) Izapidetzeaz arduratzen den organoak jakinarazpen bat bidaliko dio interesdunari dokumentazioa zuzendu dezan paperean.
- 19b) Izapidetzeaz arduratzen den organoak jakinarazpen bat bidaliko dio interesdunari dokumentazioa zuzendu dezan egoitza elektronikoa.
- 19c) Izapidetzeaz arduratzen den organoak, beste bitarteko batzuen bidez eskatuko du dokumentazioa, baina espedientean ez da gordeko sarbide elektronikoa eragotzi zuen

gertaeraren egiaztapena.

19d) Izapidetzeaz arduratzeen den organoak, beste bitarteko batzuen bidez eskatuko du dokumentazioa, eta espedienteen gordeko da sarbide elektronikoa eragotzi zuen gertaeraren egiaztapena.

## **20.Administrazio publikoak espediente elektronikoaren kopia emango dio**

### **interesdunari:**

20a) Horretarako, espedientearen artxiiboak bidaliko ditu PDF formatuan interesdunaren posta elektronikora.

20b) Horretarako, espedientera irispidea emango duen helbide elektronikoa edo lokalizatzailea bidaliko du.

20c) Horretarako, espedientearen paperezko kopia bat bidaliko du espedientearen helbidera.

20d) Horretarako, espedientearen paperezko kopia bat eta jatorrizko dokumentuak bidaliko ditu espedientearen helbidera.

## **21.Honako aukera hauetatik adierazi zein EZ da espediente elektronikoaren osagai bat:**

21a) Dokumentu elektronikoak.

21b) Aurkibide elektronikoa.

21c) Espediente elektronikoaren metadatuak.

21d) Interesdunaren sinadura.

## **22.Ziurtagiri digitala dokumentu elektroniko bat da, eta horren bidez:**

22a) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona fisiko edo juridiko baten eta hari dagokion gako publikoaren artean.

22b) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona fisiko edo juridiko baten eta hari dagokion gako pribatuaren artean.

22c) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona juridiko baten eta hari dagokion gako pribatuaren artean.

22d) Ziurtapen-agintaritzak bermatzen du lotura dagoela pertsona fisiko baten eta hari dagokion gako publikoaren artean.

**23. Ziurtagiri elektronikoa bat etenda badago eta 120 egun igarotzen badira berriz aktibatu gabe, zer egoeratan geratuko da ziurtagiria?:**

- 23a) Gaitze egoeran.
- 23b) Berritze egoeran.
- 23c) Baliogabetze egoeran.
- 23d) Etete egoeran.

**24. Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna dutenek eskubide hauek dituzte haiekiko harremanetan:**

- 24a) Gutxieneko soldata bat jasotzeko eskubidea haien kontura, nahiz eta horretarako betekizunak bete ez.
- 24b) Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzeko administrazio publikoekiko harremanetan, autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko, legean aurreikusitakoaren arabera, eta legean identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzeko eta erabiltzeko eskubidea.
- 24c) Ezkontzeko eskubidea, eta, dibortziatzeko, hala badagokio.
- 24d) Haien arteko gatazkez arduratuko den epailea aukeratzeko eskubidea.

**25. Herritarren arreta:**

- 25a) Bi bezerok aldi berean erreklamatzeko dutenean, funtzionarioak edo enplegatu publikoak erabateko lehentasuna eman behar dio lehenbizi iritsi ez denari.
- 25b) Bezero kontzeptuarekin, otsailaren 9ko 214/2020 Errege Dekretuan arautzen da, eta, besteak beste, pertsonen harrera barne hartzen du.
- 25c) Eredu normalizatuak erabiltzeak informazio-funtzioa errazten du.
- 25d) Bi bezerok aldi berean erreklamatzeko dutenean, funtzionarioak edo enplegatu publikoak erabateko lehentasuna eman behar dio telefonoz deitzen duenari.

**26. Herritarren kezak eta erreklamazioak administrazioaren jardunaren aurrean:**

- 26a) Herritarren betebeharrak gisa eratzeko dira beti.
- 26b) Administrazioak kontratua ez betetzeagatik baino ezin dira jarri.
- 26c) Administrazioaren jarduna hobetzeko aukera gisa hartu behar dira.



26d) Inoiz ez dute eragiten administrazioa hobetzeko prozedurak ezartzea.

**27. Irisgarritasun kognitiboa deritzona betetzeko, zer egin behar da?:**

27a) Garrantzitsua da hizkuntza sinplea eta zuzena erabiltzea, testua modu argi eta koherentean egituratuz.

27b) Garrantzitsua da administrazioarekin komunikazio telematikoa izatea beti.

27c) Ez dira teknizismoak saihestu behar.

27d) Hizkuntza konplexua, teknikoa eta zeharkakoa erabili behar da, esaldi luzeekin.

**28. Organo hauetatik, zeinek osatzen du nahitaez udal guztien egitura edo antolaketa?:**

28a) Alkateordeek.

28b) Tokiko Gobernu Batzarrak.

28c) Informazio Batzordeek.

28d) Iradokizunen eta Erreklamazioen Batzordeak.

**29. Non dago araututa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako erakundeen antolaketa?:**

29a) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

29b) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean.

29c) Lurralde historiko bakoitzeko erakunde-antolaketari buruzko foru-arauan.

29d) Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legean.

**30. Hauetako zein da administrazio-egintza bat?:**

30a) Administrazioaren ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioa.

30b) Zehapen-ebazpenaren proposamena.

30c) Udal-obra bat.

30d) Taberna bat irekitzeko lizentzia-eskaera.

**31. Hauetatik, zeinek amaitzen du administrazio-bidea?:**

31a) Gora jotzeko errekurtsioa jartzeak.

31b) Hierarkian goragoko organoa duen administrazio-organo baten ebazpenak.

31c) Ondare-erantzukizuneko prozeduraren ebazpenak.

31d) Berraztertze-errekurtsoa jartzeak.

**32. Zein da egintza baten jakinarazpena bideratzeko epea?:**

32a) 15 egunekoa, egintza eman zen egunetik.

32b) 20 egunekoa, egintza eman zen egunetik.

32c) 10 egunekoa, egintza eman zen egunetik.

32d) Ez dago jakinarazpen-eperik.

**33. Zer dakar administrazio-egintza baten forma-akatsak?:**

33a) Egintzaren deuseztagarritasuna, beti.

33b) Inoiz ez egintzaren deuseztagarritasuna.

33c) Egintzaren deuseztagarritasuna, interesduna babesik gabe geratzen bada.

33d) Egintzaren deusezatasuna.

**34. Administrazio-prozedurak eskaintzen dituen bermeen artean EZ dago hauetako bat:**

34a) Administrazio-egintzen legezkotasun-kontrola.

34b) Interesdunen informazio- eta parte hartze-eskubideak.

34c) Administrazio-jarduketaren gardentasuna.

34d) Interesdunek aurkeztutako eskabideen onespina.

**35. Administrazio-prozedura hasi aurretik behin-behineko neurriak hartzea erabakitzen denean:**

35a) Prozedura gehienez ere hamabost eguneko epean hasi behar da.

35b) Ezinbestekoa da aldeztu aurretik alderdi interesdunari entzunaldia ematea.

35c) Prozedura amaitu arte iraungo dute neurriak.

35d) Prozeduran zehar ezin dira aldatu.

**36. Administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dagoenak aurrez aurre aurkeztu badu eskaera:**

36a) Eskaera onartu egingo da, eta administrazioak berak emango dio sarrera eskaerari

erregistro elektronikoan.

36b) Administrazioak baztertu egingo du eskaera.

36c) Administrazioak akatsa zuzen dezala eskatuko dio, baina eskaera aurrez aurre aurkeztu zen eguna joko da aurkezpen-datatzat.

36d) Administrazioak akatsa zuzen dezala eskatuko dio, eta zuzenketa egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

### **37. Epeen zenbaketa:**

37a) Ordutan adierazten badira, administrazio-bulegoak jendearentzat irekita dauden orduak bakarrik joko dira balioduntzat.

37b) Urtetan adierazten badira, epea dagokion urteko azken egun baliodunean amaitzen da.

37c) Egunetan adierazten badira, egun natural guztiak zenbatuko dira, kontrakorik xedatu ezean.

37d) Egunetan adierazten badira, oro har, egun baliodunak zenbatuko dira, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegunak.

### **38. Zeinek du izaera subsidiarioa?:**

38a) Administrazio-errekurtsoak.

38b) Ofiziozko berrikuspenak.

38c) Biek, errekurtsuak eta berrikuspenak.

38d) Bietako batek ere ez, ez errekurtsuak ez berrikuspenak.

### **39. Kaltegarritasun-deklarazioari dagokionez:**

39a) Ezinbestekoa da administrazioak bere egintza deuseza aurkaratu ahal izateko.

39b) Ez da beharrezkoa interesdunei entzunaldia ematea.

39c) Egintza deuseztagarriei eragiten die.

39d) Ez da oinarri prozesaltzat hartzen administrazioarekiko auzi-errekurtsua onartzeko.

### **40. Administrazio-errekurtsu bat aurkeztean nahitaezko dokumenturen bat eranstea ahaztuz gero, zer gertatzen da?:**

40a) Errekurtsua ezin izango da izapidetu oztopo formal garrantzitsua delako.

40b) Administrazioak hamar eguneko epea eman behar dit akats hori zuzentzeko.

40c) Prozeduraren ondorengo edozein unetan aurkez dezaket, nahi izanez gero.

40d) Ez du inolako ondoriorik prozedurarako.

## **2 ZATIA**

### **41. Dokumentu baten bizi-zikloak 6 fase ditu. Zein da jarraitu beharreko ordena kronologikoa?**

41a) Sarrera, banaketa, administrazio-dokumentuak sortzea, irteera, artxibo nagusian sartzea, konserbazioa.

41b) Sarrera, banaketa, administrazio-dokumentuak sortzea, artxibo nagusian sartzea, kontserbazioa, irteera.

41c) Sarrera, administrazio-dokumentuak sortzea, banaketa, artxibo nagusian sartzea, kontserbazioa, irteera.

41d) Sarrera, banaketa, administrazio-dokumentuak sortzea, irteera, kontserbazioa, artxibo orokorrean sartzea.

### **42. Sail bateko espedienteak edo dokumentuak antolatzeko sistema hauetatik, zein da OKERRA?**

42a) Kronologikoa.

42b) Alfabetikoa.

42c) Sinbolikoa.

42d) Zenbakizkoa.

### **43 Egun baliogabe batean elektronikoki erregistratutako prozeduretan, noiztik hasiko dira zenbatzen eta betetzen erregistro horretako epeak?**

43) Beti, hurrengo egun balioduneko lehen ordutik aurrera.

43b) Hurrengo egun balioduneko lehen ordutik aurrera, ez bada arau batek berariaz baimentzen duela elektronikoki erregistratzen den une beretik izatea.

43c) Elektronikoki erregistratzen den unetik bertatik.

43d) Zuzentzen zaion administrazio publikoak onartzen duen unetik aurrera.

**44 Honako kasu hauetatik, zeinek EZ du betetzen benetako kopia elektronikoen ezaugarriren bat?**

44a) Kopian adierazi behar da.

44b) Paperean aurkeztutako jatorrizko dokumentuen balio eta eraginkortasun bera du.

44c) Ez du baliorik administrazio guztietan.

44d) Dokumentu pribatuenean administrazio-ondorioak baino ez dituzte.

**45 Administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen arabera, Administrazio guztietako erregistro elektronikoen funtsezko ezaugarri bat bete behar dute:**

45a) Teknikoki trukagarriak izatea, bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatzeko, bai eta erregistro-idazpenen eta edozein erregistrotan aurkezten diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko ere.

45b) Erabat elkarreragingarriak izan behar dute, bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatzeko, bai eta erregistro-idazpenen eta edozein erregistrotan aurkezten diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko ere.

45c) Erabat elkarreragingarriak izatea, bateragarritasun informatikoa gorabehera.

45d) Normalizatuak izatea.

**46 Dirulaguntzen deialdi batean, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eskakizun bat betetzeko eskatzen zen, eta epe horretan, eskakizun hori betetzen zela egiaztatzen zuen agiria aurkezteko. Pertsona batek ez du egiaztatu eskatutako baldintza. Udalak eskaera zuzentzeko errekerimendua egin du. Eskabidea zuzentzeko ezarritako epean, pertsona horrek aukera izango du:**

46a) Arrazoitu zergatik ezin izan duen dokumentua lehenago aurkeztu, eta dokumentua eransteko konpromisoa hartu, baldintza bete eta hori egiaztatzen duen dokumentua eskuratu ahal izan bezain laster.

46b) Egoera hori ezin da zuzendu. Akats materialak baino ezin dira zuzendu.

46c) Eskatutako agiria aurkeztu, baldintza epearen barruan betetzen zuela jakinarazita.

46d) Gora jotzeko errekurtsioa jarri, prozeduran jarraitu ahal izateko.

**47 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2. artikulua ezartzen duenez, honako hauek osatzen dute sektore publiko instituzionala:**

- 47a) Unibertsitate publikoak.
- 47b) Administrazio publikoei loturik edo haien mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak.
- 47c) Administrazio publikoei loturik edo haien mendean dagoen zeinahi organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitate.
- 47d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**48 Adierazi erantzun hauetako zein EZ dagoen araututa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean, 1. artikulua arabera:**

- 48a) Administrazio publikoen erantzukizun-sistemaren printzipioak.
- 48b) Administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidea.
- 48c) Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak.
- 48d) Zehatzeko ahalaren printzipioak.

**49 39/2015 Legeak ezartzen duenez, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, hizkuntzaren erabilera honako honetan aurreikusitakora egokituko da:**

- 49a) Lege hau edo, halakorik ezean, dagokion autonomia-legeria.
- 49b) Lege hau.
- 49c) Dagokion autonomia-legerian.
- 49d) Dagokion autonomia-legeria edo, halakorik ezean, lege hau.

**50 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, Administrazio publikoen jarduera. Adierazi zein den OKERRA.**

- 50a) Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez dauden behartuak.

50b) Behartuta ez dagoen pertsona fisikoak administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratzen duen bidea edozein unetan aldatu ahal izango du.

50c) Betiere, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuak egongo dira nortasun juridikorik gabeko erakundeak.

50d) Administrazio publikoetako langileek, beti.

### **51 Idazpenak hurrenkera honetan egingo dira:**

51a) Dokumentuak jaso, eta gertatu eta gertatzen diren dataren hurrengo eguna adieraziko dute.

51b) Dokumentuak jaso edo atera, eta zer egunetan egin diren adieraziko dute.

51c) Dokumentuak jaso edo atera, eta gertatzen diren dataren hurrengo eguna adieraziko dute.

51d) Dokumentuak jaso, eta gertatzen diren dataren aurreko eguna adieraziko dute.

### **52 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 17. artikulua araber:**

52a) Amaitutako prozedurei dagokien artxibo elektronikoa bakar bat izan beharko du administrazio bakoitzak.

52b) Dokumentu elektronikoak haien autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuko dituen formatu batean kontserbatu behar dira, eta bermatu behar da haien kontsultatzeko modua izango dela 20 urteko epean.

52c) Ministerio-departamentuko titularrak zehaztuko ditu artxibo elektronikoa bakoitzaren kopurua eta xedea.

52d) Administrazio bakoitzak artxibo elektronikoa bat eduki beharko du prozedura berezi orori dagozkion dokumentu elektronikoetarako.

**53 Xabier Garcia Garciak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu du Leioako Udaleko erregistro orokorrean Maria Alonso Bilbaoren izenean, Maria Alonso Bilbaori obra-lizentzia ematea ukatzen dion ebazpenaren aurka errekurtsioa jartzeko. Nola ulertu behar da administrazio-isiltasuna, Udalak Xabier Garcia Garciak jarritako errekurtsioari erantzuten ez badio?**

53a) Baiestekoa, beti.

53b) Baiestekoa, ondorengo ebazpenean ezetsi ezean.

53c) Baiestekoa, eta ondorengo ebazpenean berretsi egin behar da hori.

53d) Ezestekoa.

#### **54 Ondorengo egintzetatik, zein ez da erabat deuseza?**

54a) Ezinezko edukia dutenak.

54b) Hierarkiagatik argi eta garbi eskumenik ez duten organoek emandakoak.

54c) Arau-hauste penal baten ondorioz ematen direnak.

54d) Legez ezarritako prozedura guztiz eta erabat alde batera utziz ematen direnak.

#### **55 Arrazoitu egin beharko dira, egitateen eta zuzenbideko oinarrien aipamen laburra eginez (adierazi erantzun OKERRA):**

55a) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak mugatzen dituzten egintzak.

55b) Lehenagoko jarduketetan erabilitako irizpidearekin edo organo aholku-emalleek emandako irizpenarekin bat datozen egintzak.

55c) Interesdunek proposatutako frogak baztertzen dituzten egintzak.

55d) Ahal diskrezionalak erabiliz ematen diren egintzak.

#### **56 Nolanahi ere, honako eskumen hauek dagozkio Osoko Bilkurari (adierazi erantzun OKERRA):**

56a) Gobernu-organoak kontrolatzea eta fiskalizatzea.

56b) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.

56c) Enplegu publikoaren eskaintza onartzea.

56d) Eskumen-gatazkak planteatzea beste toki-erakunde batzuei eta gainerako administrazio publikoei.

#### **57 39/2015 Legeak 14.2 artikuluan ezartzen duenez, subjektu jakin batzuk behartuta daude administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera, edozein dela ere egingo duten administrazio-prozedura baten izapidea. Pertsona**



**hauetako zeini adierazi behar diogu bere dokumentazioa aurrez aurre aurkez dezakeela Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan?**

57a) Enpresa bat.

57b) Jabekideen Erkidego bat.

57c) Udaleko langile bat, enplegatu publiko izatearekin lotutako izapide baterako, udalak erregelamendu bidez erabaki duenean elektronikoki egin behar duela.

57d) Bizi den helbidean obra txiki baten aurretiazko jakinarazpena aurkeztu nahi duen abokatu bat.

**58 40/2015 Legeak ezartzen duenez, Udaleko langilea naizen aldetik, abstenitu egin beharko dut, baldin eta lege honen 23.2 artikuluan adierazitako arrazoiren bat betetzen bada. Adibidez, nire nebaren emazteak gizarte-larrialdietarako laguntza eskatzeko espediente bat izapidetzean, honako hau egin beharko dut:**

58a) Ez dut esku hartuko.

58b) Nire nagusiari jakinarazi, esku har dezakedan ala ez erabaki dezan.

58c) Ez dut esku hartuko eta nire nagusiari jakinaraziko diot.

58d) Ez daukat abstenitzeko betebeharririk, ez baita aipatutako artikuluan adierazitako kasuetako bat.

**59 Ingeniari bat Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuko bulegoetara joan da Jarduera Sailkatua hasteko Aurretiazko Jakinarazpena aurkeztera, industria-pabiloi batean bulego bat irekitzeari buruzko zenbait ziurtagirirekin batera. Dokumentazioa erregistratu eta dagokion arlora bideratu da, dagokion espedientea izapidetu dezaten. Izapidegileek ikusten dute funtsezko dokumentazioa falta dela, eta Udaltzaingoak jarduera abian dagoela jakinarazten du. Zer egin behar du Izapidetze Arloak?**

59a) Eskaera zuzentzeko eta hobetzeko errekerimendua egitea.

59b) Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuari adieraztea ingeniaria legezko betebeharra duen pertsona dela eta dokumentazioa erregistratzeko EGOITZA elektronikora bideratu behar zutela.

59c) Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, jarduera eteteko aginduko duen ebazpena ematea.

59d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**60 Hiri-autobus zerbitzuaren esleipendunak ekainean aurkeztutako faktura ordaintzeko dekretua sinatu ondoren, konturatzen zara faktura horretan adierazten dela ordaindu beharreko zenbatekoa 48.923,55 eurokoa dela, baina, egiaz, 49.823,55 eurokoa izan beharko lukeela. Zer egin behar da?**

60a) Baliogabetzeko dekretu berri bat prestatu, egintza deuseztagarria baita.

60b) Harremanetan jarri Kontabilitate Arloarekin, Dekretuan akats bat dagoela eta, beraz, esleipendunari 49.823,55 € ordaindu behar zaiola adierazteko.

60c) Dekretu berri bat prestatu, akats materiala zuzentzeko. (\*)

60d) Aurreko hiru aukeretako bat ere ez da zuzena.

## ERRESERBAKO GALDERAK

### 1 ZATIA

**61 Noiz erabil daiteke erregistro elektronikoro orokorreko formulario bat egoitza elektronikobatean, ezetsia izan gabe?:**

61a) Beti.

61b) Izapide espezifiko bat egiteko formulario elektronikorik ez dagoenean, eta prozedura hasteko formulario normalizatua duen prozedura elektronikoko baten izapidea ez denean.

61c) Inoiz ez.

61d) Erregistro Orokorreko prozedura bat dagoenean.

**62 Jendearen arretarako kanalei dagokienez:**

62a) Printzipio hauek bete behar dituzte, besteak beste: herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea eta sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna.

62b) Ahalik eta gutxien izan behar dute, beren eginkizuna beteko dutela bermatzeko.

62c) Ez dute herritarren parte-hartzea sustatu behar administrazio publikoaren ingurunean.

62d) 38/2020 Legean daude araututa eta telematikoki baino ezin dira ezarri.

**63 Administrazio-prozedurak sinplifikatzeak, zer ekarri du, besteak beste?:**

63a) Jarduera jakin batzuk hasteko, administrazio-prozeduraren ordeztu, erantzukizunpeko adierazpenak edota komunikazioak erabiltzea.

63b) Administrazio-prozeduratik beharrezkoak ez diren izapideak ezabatzea, baina prozedura sinplifikatu bat garatzeko aukerarik utzi gabe.

63c) Interesdunek ezin parte hartu ahal izatea eragiten dieten administrazio-prozeduretan.

63d) Administrazioak ez izapidetzea jada administrazio-prozedurarik; izan ere, haren parte hartzea a posteriori baino ez da aurreikusten, partikularren jarduerak kontrolatuz.

**64 Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenari dagokionez:**

64a) Berraztertze-errekurtsoa jar dakioko, administrazio-bidea agortzen baitu.

64b) Ezin da jurisdikzio-bidean errekurritu.

64c) Egintza espresuen aurka baino ez da jartzen.

64d) Gehienez ere hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi behar da ebazpena.

## **2 ZATIA**

**65 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikulua araberak, hauek dira administrazio-prozeduran interesdunak:**

65a) Interes legitimo indibidualen titular diren elkarte eta erakundeak.

65b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.

65c) Prozedura haiek ez hasi arren eta hartan hartuko den erabakiak uki dezakeen eskubiderik izan gabe, hala eskatzen dutenak.

65d) Prozeduran aurkezten den edozein.

**66 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araberak, Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan:**

66a) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan.

66b) Edozein dela ere prozedura hasteko modua.

66c) Soilik ofizios hasitako prozeduretan.

66d) Preskripzioa edo eskubideari uko egite kasuetan izan ezik.

**67 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, Interesdunek administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak honela aurkeztu ahal izango dira:**

67a) Administrazioaren laguntzaile gisa diharduen edozein erakunderen bulegoetan.

67b) Administrazioarekin lankidetzan publiko-pribatuko eginkizunak betetzen dituzten bulegoetan.

67c) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan, bai eta legez aurreikusitako subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan ere.

67d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**68 APEL ez da inondik inora zorrotza administrazio-errekurtso bat jarri ahal izateko behar diren betekizun formalekin. Hala, Jabeen Erkidego batek terraza bat jartzeko emandako lizentzia baten aurkako errekurtsua aurkezten duenean. Zer datu jaso behar ditu, gutxienez, aurkezten den testuak?**

68a) Izena, erkidegoaren identifikazioa, jakinarazpenetarako helbide elektronikoa, errekurritutako egintza, arrazoia eta zein organo/zentro/administrazio-unitateri zuzentzen zaion.

68b) Izena, erkidegoaren identifikazioa, jakinarazpenetarako helbide elektronikoa, errekurritutako egintza eta arrazoia.

68c) Izena; erkidegoaren identifikazioa; jakinarazpenetarako helbide elektronikoa; erkidegoaren lekua, data eta sinadura; errekurritutako egintza eta arrazoia.

68d) Izena; erkidegoaren identifikazioa; jakinarazpenetarako helbide elektronikoa; erkidegoaren lekua, data eta sinadura; errekurritutako egintza eta arrazoia; eta zein organo/zentro/administrazio-unitateri zuzentzen zaion.